

EGUNEROKOTASUNA HAUTSIZ, ERRONKEI EUTSIZ

-I-

Ametsen itsaso baretan
denbora ez doanean aurrera,
behin sasoi batetik eta gero
zein nekeza den esnatzea,
eta areago ohetik jaikitzea.

Nagikeria dela?
Ala gogorik eza,
bizitzarekin borrokatzeko?

Bizitza den bezalakoa denez ordea,
minutu luze batzuk barru bada ere,
behegain hotzean,
sumatzen dira lehenengo urrats motelak,
gerokoa berez etorriko dela.

-II-

Txori-kantu alaia
modukorik ez dago
nagikeria astintzeko.
Halako iratzargailu bikaina
norberaren logelari so,
gaitz da ez sentitzea ondo.

Lantzean behin entzun daitezke kaioak ere,
kalatxoriak deritzenak gure herrian.
Batzuen esanetan
berri txarren mezulari omen diren arren,
ondo pentsatzen jarrita
badute halako xarma berezia,
kantu-leloa ulertzen saiatuz gero bederen.

Hala diote arrantzale zaharrek,
jakin baitakite
kantu horri esker
itsasoan dela olatu nahiz denborale.

Kalarik kala ibili ohi direnez,
mihilu eta kresal artean,
txilioka haitzetan,
hortik datorkie izena:
kalatxoria.

Lehorretik, moila bazterretik
ikusten dira halaber,
txilioka arrantza-ontzien atzetik,
portura arraina datorrenaren seinale.

-III-

Halako batean,
eta orekari eusteko ahaleginean,
heldu diot eguneroko erronkari,
ekin diot oinez egiteari,
iraganeko damu eta mamuetatik ihesi,
ihes egitetik biziki pozik,
arnasa berriz aske hartzeko aukerarekin,
mementoak bizitzeko gogoarekin,
ezari-ezarian baitoa dena,
itzulirik gabeko denboran.

-IV-

Iragan-denboretako soinulariarekin
egin nuen bart amets,
istorio zahar hura gogora ekarriz.

Harri gorri baten ganean jarri,
eta txirula jotzen hasi ei zen,
itsasoak lapurtutako paraje basati bakartian.

Berehala itsasoko urak bihurtu ziren handi,
orro eginez haserre,
mendi-magalen aurkako erasoaldian.

Hasian hasi,
kolpez kolpe,
harriak ziren erori.

Harriak zituen gero jaurti
amorruez, indarrez,
bata bestearen atzetik.

Aitzitik, soinulariak jarraitu zuen fin,
fin txirula jotzen,
are eta ozenago orroen gainetik.

Harriak hondar-harri,
hondar-harriak hondar mehe,
laster geratu zen lehorra ageri.

Halaxe, jakin barik,
itsasoak galdu zuen
beretzat zuena loturik.

Harrezkero, aske izanik,
hondar aho betez,
herri bat ahal izan zen eraiki.

F. Javier Arrieta Idiakéz